

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### **Behin betiko onestea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantzaren aldaketa**

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza aldatzeko espedienteari alegaziorik egin ez zaionez gero, ordenantzaren testu kontsolidatua argitaratu egiten da indarrean jartzeko.

LEHENENGOA. Kanpezuko Udalaren eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zerga arautzen dituen zerga ordenantzaren 11. artikulua aldatzea.

Gaur egun, 11. artikulua horrek hau ezartzen du:

Aginduzko baimena ematen bada edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkezten bada, edo baimena eskatu edo eman ez arren (edo eskatu eta ukatu arren) edo adierazpena edo jakinarazpena aurkeztu ez arren eraikuntzari, instalazioari edo obrari ekiten bazaio, konturako behin-behineko likidazioa egin beharko da, eta horretarako honela kalkulatu da zerga oinarria:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, baldin eta dagokion elkargo ofizial eskudunak ikus-onetsi badu, ikus-onespena aginduzko betekizuna izanez gero.

b) Bestela, zerga oinarria udal teknikariek kalkulatu dute proiekturako aurreikusitako kostuaren arabera.

Eta aldaketa egin ondoren, honela geratuko litzateke:

1. Aginduzko baimena ematen bada edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkezten bada, edo baimena eskatu edo eman ez arren (edo eskatu eta ukatu arren) edo adierazpena edo jakinarazpena aurkeztu ez arren eraikuntzari, instalazioari edo obrari ekiten bazaio, konturako behin-behineko likidazioa egin beharko da, eta horretarako honela kalkulatu da zerga oinarria:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, baldin eta elkargo ofizial eskudunak ikus-onetsi badu, ikus-onespena aginduzko betekizuna izanez gero.

b) Bestela, zerga oinarria udal teknikariek kalkulatu dute proiekturako aurreikusitako kostuaren arabera.

2. Zergaren kuotari honako hoberi hauek aplikatuko zaizkio:

a) Baldin eta eraikuntzak, instalazioak edo obrak udalerrian ezarri berri diren eta edozein sektore ekonomikokoak diren enpresek egiten badituzte jarduera ekonomiko bat ezartzeko, eta udalak interes bereziko edo udal onurako deklaratu baditu, enplegua sustatzeko egoera jakin batzuk direla-eta deklarazio hori justifikatuta dagoelako, ehuneko 80ko hoberia aplikatuko da zerga kuotan jarduera gutxienez 5 urtez mantentzen bada.

Hoberi horren ondorioetarako, ez da ulertuko udalerrian ezarpen berriko enpresak direnik, baldin eta haien jarduera ekonomikoa lehenago beste titulartasun batekin gauzatu bada. Jarduera lehenago beste titulartasun batekin egintzat joko da kasu hauetan, besteak beste: bategitea eta bereizketa.

B) Edozein sektore ekonomikoko izan gorabehera, eraikuntzak, instalazioak edo obrak lehenago dagoen edozein sektore ekonomikotako jarduera ekonomiko bat handitzeko edo hobetzeko egiten direnean, ehuneko 40ko hoberia aplikatuko da zerga kuotan, baldin eta jarduera gutxienez 5 urtez mantentzen bada.

C) Ehuneko 80ko hobarria ezarri da zergaren kuota osoan, ezintasun funtzionala duten pertsonen etxebizitza, lokal edo negozioetara sartzeko irisgarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak errazteko oztopo arkitektonikoak kentzera bideratutako eraikuntza, instalazio edo obren alde.

Hobariak erregu izaera izango da, eta zergadunak zergaren likidazioa egin aurretik eskatu beharko du. Hobari horren barruan sartuko da, soilik, eraikina desgaitasun funtzionalen bat duten pertsonen irisgarritasunera eta bizigarritasunera egokitzeko oztopo arkitektonikoak ezabatzeke helburua duen obra zatia.

Obraren zati hori bereizita nabarmendu beharko da obra proiektuan edo, halakorik ezean, obra lizentzian. Betekizun horiek obraren teknikari zuzendariak egiaztatuko ditu, emandako lizentziaren kopia eta egiaztagiria aurkeztuta.

d) Ehuneko 80ko hobarria eraikuntza, instalazio eta obretarako.

– Eguzki energia edo beste energia berriztagarriren bat argindarra edo beroa sortzeko sistemak darabiltzatenerako. Baldintza bat egongo da hobari hori aplikatzeko: beroa sortzeko instalazioek dagokion Administrazioaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak izatea.

– Xedea bada higiezinaren birgaitze osoa, hots, energia eta irisgarritasuna birgaitzea.

Horretarako, energia birgaitzeak helburu izan behar du A edo B motako energia eraginkortasunaren etiketa lortzea.

– Udalerriko auzo eta zonen birgaitze osoaren proiektuen harira egiten badira, energia berriztagarriak erabiltzeko.

Letra honi dagokion hobarria aplikatuko zaie indarrean dauden legeen arabera nahitaezkoak ez diren inbertsioei soilik.

Aurreko letretan aipatutako hobarria aplikatu baldin bada, letra honetako hobarria aurreko hori aplikatu ondoren aplikatuko da.

**BIGARRENA.** Kanpezuko Udalaren eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zerga arautzen dituen zerga ordenantzaren eranskina aldatzea.

Egun eranskinak hau xedatzen du:

Tarifa

<b>Eraikuntza, instalazio edo obra mota</b>	<b>Karga</b>	<b>tasa</b>
Edozein eratako obretarako ehuneko		3,40

Aldaketa egin ondoren, honela geratuko litzateke:

Tarifa

<b>Eraikuntza, instalazio edo obra mota</b>	<b>Karga</b>	<b>tasa</b>
Edozein eratako obretarako ehuneko		3,70

Santikurutze Kanpezu, 2021eko apirilaren 12a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRA TXASKO*